

1. SARRERA

15. mendean jazotako gertakari historiko bat oinarri hartuta, Mondragoeko Erreketaren Kanta Iburguen-Cachopin kronikan agertutako eresia dugu. Argi dago erreketak oihartzun handia sortuko zuela garaiko euskaldunengan, eta erromantze moduko kanta honek hainbat aldaera ezagutu omen ditu. Nahiz eta aipatutako kronika 1588 inguruan idatzia izan, kontatzen diren jazoerak 1448an gertatu ziren; Garai hartan bertan eratu zitezkeen lehenengo bertsoak. Hortaz, testuak islatzen duen hizkera 15. eta 16. mendeen arteko mendebaldeko euskalkia dateke.

Tamalez, eresia nolabait desegituratuta heldu zaigu, eta Iburguen-Cachopinek bildutakoak zenbait herri kanta desberdinen osaketa dirudi. Idazlari bat baino gehiagok egin omen zizkion emendakinak edo adabakiak testuari, jatorrizko hitzak desitxuratu.

Gaiaren aldetik, oso kutsu epiko handia duen arren, idazlarien aldaketak eta eransketak direla eta, ez du zentzu oso bat, eta narrazioa ikuspuntutuz eta topikoz sarri aldatzen da, haria galduz eta interpretazioa zailduz, hitz batzuen esanahiak iluntzeraino.

Hala eta guztiz ere, garai hartako mendebaldeko euskararen ezaugarriak aztertzeko egokia suertatzen zaigu kanta, eta, bukaeran erakutsiko dugunez, beste euskalkiekin batuago zegoela frogatzen du, erdialdean eta are gehiago, Ipar Euskal Herrian soilik iraun duten ezaugarriak erakutsiz. Mendebaldeko ezaugarri zaharrei dagokienez, Lazarraga arabarraren hizkerarekin bat egiten du hainbat alderditan.

2. FONETIKA ETA PROZESU MORFO-FONOLOGIKOAK

Fonetika arloan, deigarri iruditzen zaizkigun aldaera batzuen artean:

Eresiaren hizkeran latinetik eratorritako *-one-z* amaitzen ziren hitzak *-oe* bilakatu dira (*Mondragoe 25, cantoe 27*), eta ez geroagoko *-oi*. Era berean, *-ione-z* amaitzen zirenak *-ioe* bihurtu dira (*trajioe 23*), eta ez bizkaierazko *-iño* edo bestelakoen *-io*.

Azken hitz horretan ere, <j> grafemak ordezkaturako hotsa daukagu jatorrizko *-iz-* (yod + txistukaria) batetik garatuta. Horrek gogorarazten digu bizkaierazko **eleiza* > *elexa* hots aldaketa (sabaikaritzea), baina ezin gara ziur egon <j> hori hots berbera denik.

Bestetik, Hego Euskal Herriko bereizgarri den bustidura prozesua ez da ziurtasunez ageri testuan. Hitz bakar batean grafiaren bidez islatzen da: *Maiñari* (51). Edonola ere, oso bustidura ahula izan zitekeen garaikoa, yod (eta ez i bokal arrunt) baten ondoren bustidura (sudurkarietan eta albokarietan, apika) oraindik garatzeko prozesuan zegoelako. Espero genezakeenetan ere ez dago: *ylic* (16), *çein* (33), *oyn* (38), *bein* (46).

Prozesu morfologikoei dagokienez, geroago bizkaieraz ohikoak izango ziren aldaketa asko ez dira gauzatzen. Esaterako:

-e + -a > -ea (*partea 2, semea 43*); eta ez -ia, -ie

Hala ere, mendebaldeko euskalkian arrunta den legez, -a-z bukatutako hitzei -a artikulua eranstea -ea dugu eta ez -a soila:

-a + -a > -ea (*bereac 42*)

Prozesu berberaren beste froga bat *andra* (51) hitzak eskaintzen digu. Aipatu berri ditugun bi gauzatze morfo-fonologikoak direla eta, -e-z eta -a-z bukatutako hitzak harrezkero nahastuta zeuden, absolutibo singularrean emaitza berbera zuten eta.

berea < *bera* + -a

andrea < *andra* + -a edo *andre* + -a

Bokal luzeen agerpena antzeman daiteke bi hitzetan, artikulua gehitzen ez zitzaienetan:

-a + -a > -aa (*Madalenaan 9, arabaarri 12*)

3. ANALISI MORFO-SINTAKTIKOA

3.1. Izena

Izenak ondoko kasu hauetan aurki ditzakegu testuan:

Absolutiboa:

Singularrean, beti -a gehitzen zaio izenari (*seme lasterra 47*).

Pluralean, -ak edo artikulua erabiliz gero -ok (*bizarra 28, bergararroc 22*).

Mugagabea, ez da ezer gehitzen.

Funtzioari dagokionez, aditz iragangaitzeko subjektua (*bergararroc* 22) eta aditz iragankorreko objektu zuzena (*ceuren jauna* 5) izateaz gain, singularrean bokatibo gisa ere erabiltzen da (*semea* 43). Gainera, mugagabeen osagarri zuzena (indefinitua?) izan daiteke (*su emaytean*¹ 30, *eudela parte* 37), osagarri predikatiboa ere (*luma*² 38), eta *bage*-ren errejimenean³ (*viola tronpeta bague* 10, *ospe bagueric* 18).

Ergatiboa:

Singularrean, beti -ak gehitzen zaio izenari (*suac* 3, *yzarrac* 20, *gazteac* 39).

Pluralean, badirudi -ak gehitzen zaiola (*barruangoac* 32).

Mugagabeen, izen bereziekin -(e)k du marka (*Çaldibarrec* 2, *Gomizec* 11, *Joanicoc* 36).

Funtzioari dagokionez, ez dago berezitasunik (aditz iragankorreko subjektua).

Datiboa:

Adibide bakarra dugu, izen berezi batekin -(r)i marka duena: *Maiñari* (51).

Zehar objektua adierazten du.

Genitiboa:

Singularrean, ez dugu adibide fidagarririk: *chibuluen* (18) singularra nahiz plurala izan daiteke.

Pluralean, berriz, erakusleetan topatzen dugu -en atzizkia: *euroen* (24), *aen* (28).

Formaren aldetik mugagabea izan daitekeenak, *trajioe baten* (23), berez singularra du zentzua.

Funtzioari dagokionez, izenlaguna da gehienetan (*chibuluen ospe* 18, *aen bizarrac* 28), baina aditz jokatugabeko osagarri zuzena (TOGa) ere bada (*trajioe baten asmaçean* 23), eta *artean*-en errejimena (*euroen artean* 24).

Soziatiboa:

Singularrean, bizkaierazko -gaz aurkitzen dugu (*beragaz* 35).

Pluralean, -kaz (*armakaz* 29), absolutibo pluralaren gainean eratuta.

Sintaxian ikusiko dugunez, esamolde batzuetan koordinazio zaharreko kutsua du.

Leku-genitiboa:

Singularrean, -ko marka dauka: *cantoeko* (27).

1 Hala ere, *su eman* gaurdaino ihartuta gelditu den esapidea da, *hitz egin* bezala (eta hein txikiagoan *lo egin*).

2 Esaldi horren esanahia ez dago zeharo argi, baina Mitxelenak ulertzen duen moduan "luma gisa" edo "luma bezala" izango litzateke hor mugagabeen agertzen den "luma".

3 Egungo euskaran ohikoagoa partitiboarekin.

Aipagarria da, bestalde, adibide batean leku-genitiboa inesiboaren gainean eratuta dagoela: *barruangoac* (32)

Inesiboa:

Singularrean -an ohikoa gehitzen zaio izenari (*Madalenaan* 9, *çeruan* 21, *goyan* 21). Adibide bakar batean badirudi -on inesibo hurbila⁴ dela: *lasterreon*⁵ (26). Ezin da ahaztu mendebaldeko ezaugarria den "baten"⁶ inesiboko forma agertzen dela: *laster baten* (40).

Pluralean, -etan du marka (*çaurietan* 44). Adibide horretan "kuradu" aditzaren errejimena dirudi.

Mugagabeen, -tan topatzen dugu: *bertan* (37).

Alatiboa:

Alatiboko forma garbi bakarra dugu testuan: *oera* (45). Formaren aldetik behintzat ohiko -ra bada ere, bere testuinguruari erreparatuta inesiboa espero genuke. Beraz, inesiboko adiera⁷ izan zezakeen alatiboa da hau.

Beste honetan, *uraz alde bestean* (41), badira alatiboa irakurri dutenak: *uraz alde beste(r)a*.

Hurbiltze alatiboa (-*rantz*, -*rat*) izan zitekeen batere argi ez dagoen lerro honetan: *Axeçat sartu* (52). Arriolabengoak⁸ horretan proposatzen zuen -*tzat* moduko marka bat (egungo prolatiboaren berbera) hurbiltze alatiborako.

Ablatiboa:

Bi ablatibo desberdin omen ditugu testuan.

Bata ablatibo zaharra -(r)ik (partitiboaren jatorria): *Maloguenic* (19).

Lerro horretan bere balioa lekuzko kasu bezala nahiko argi den arren, *urrun* aditzondoaren errejimena ere izan daiteke.

Beste aldetik, baliteke bizkaierako ablatibo zaharra -(r)ean ere izatea, adituen ustetan:

*ostançean*⁹ (21)

Partitiboa:

Forma ohikoa duen arren -(r)ik, errejimen bereziko esapide bakar batean agertzen zaigu:

4 Gaur egungo euskaran "berton".

5 Gaur egungo euskara "lasterrean" dugu.

6 Erdialdean "batean"; Ekialdean "batetan".

7 Inguruko hizkuntzekin erkatzen badugu, ez da hain arraroa: fr. *je vais au lit* (ohera noa), *je reste au lit* (ohean nago).

8 98. orr.

9 *zerutik* edo *egunsentitik*

asko + -ik (gaur ihartuta daukagun "eskerrik asko").

asco lagunic (11)

Instrumentala:

Antza denez, bere erabileraren zati handian soziatiboak gailendu du eta errejimen berezi batean soilik dago testuan:

uraz alde bestean (41)

3.2. Erakusleak, pertsona izenordainak eta bestelakoak

Erakusleak:

1. gradukoak: soz. sg. *onegaz* (31).

3. gradukoak: gen. pl. *aen* (28), gen. pl. ind. *euroen* (24).

Azken bi horietan zeresan handiago dago.

Lehenengoan, *aen*, bizkaierazko 3. graduko erakusleen erroari jarraituko litzaioke, alegia, *a(r)-¹⁰ izango litzateke oinarria, zeini genitibo pluraleko marka (-en) atxikiko litzaiokeen.

Bigarrena, *euroen*, berez 3. gradukoa (indartua) izanda ere, nolabaiteko hurbiltasuna adierazten du -o- artikulu hurbila daukalako. Dena dela, genitibo pluralerako egungo moldea *euron* da.

Pertsona izenordainak:

1. pertsona: abs. sg. *ni* (53)

2. pertsona: gen. pl. ind. *ceuren* (5)

Forma indartu honek genitibo arruntaren marka darabil, izen morfologiarekin analogiagatik sortua. Pluraleko esanahia du, hau da, egungo *zeuen*, nahiz eta *zeure* formatik abiatuta garatu. Gainera, Linschmann-Aresti legea betetzen du, dagokion adizkian (*ceñcan*) *zu(e)k* NORK-eko komunztadura delako.

3. pertsona: abs. sg. ind. bera (52), soz. sg. ind. beragaz (35)

Biak ala biak *ber- erroatik sortutako forma indartuak dira.

¹⁰ Gaurko bizkaieraz abs. sg. *arek* / *ak*, abs. pl. *areek*; gen. sg. *aren*, gen. pl. *areen*.

3.3. Aditza

3.3.1. Aditz jokatu gabea

Aditz izena (eta forma burutu gabea)

Aditz izena eratzeko hiru forma desberdin erabiltzen dira testuan.

1) *-tu-z* amaitutako aditzekin ohikoa den *-tze* atzizkiaren eransketa: *asmaçean* (23)

2) *-n-z* amaitutako aditzetan *-ite* atzizkiaren bidez, lapurtera klasikoan bezala: *emaytean* (30)

3) Mendebaldeko euskalki zaharraren bereizgarri den *-tzai-* aditzoinari erantsita + *-te* atzizkia.

Horren isla testuan daukagu bestelako aditz izen batean: *çarçayqueran* (27). Arabako testuetan agertu ohi da bi silabako aditzetan: *sartu* > *sartzaitea*, *hartu* > *hartzaitea*, *batu* > *batzaitea*, *heldu* > *heltzaitea*, *kendu* > *kentzaitea*, *lotu* > *lotzaitea*, *saldu* > *saltzaitea*¹¹.

Forma burutu gabe bakarra agertu zaigu eresi osoan: *emayten* (50).

Forma burutua

Jatorriz euskal partizipioak zirenak (-n, -i, -o): *urten* (31), *esa(n)* (42), *(h)asi* (22), *ygaro* (40) .

Partizipio latindarretatik sortutako *-tu/-du* atzizki emankorra: *sartu* (52), *bidaldu* (53).

Partizipio erromantzeetan mailegatutako *-du*, mendebaldeko euskararen ezaugarri: *curadu* (44).

Partizipioa

Betiere -(r)ik erabiliz: *ylic* (16), *lagunduric* (17).

Mendebaldean eta Erdialdean (batez ere) sortuko zen *-ta-z* bukatutako partizipioa ez zen oraindik garatu, baina, sintaxian ikusiko dugunez, "forma burutua + eta" jadanik erabiltzen zen.

Aditzoina

Aditzoina oparo agertzen da eresian; EDIN eta EZAN erroko adizki laguntzaileekin erregulariki gauzatzen da, eta hau azpimarratzekoa da, zeren geroagoko bizkaierazko testuetan ez da inondik inora horrela gertatzen (eta gehienetan forma burutua erabiltzen da).

gal didila (1)

sumi açala (4)

ez cençan empara (5)

¹¹ Landucci-ren hiztegiko adibideak (in Zuazo 2012).

sar gaytezan (26)

3.3.2. Aditz jokatua (I): Laguntzaileak

Lehenik eta behin aipatu behar da banaketa oso garbia dagoela lehenaldiko adiera duten adizkietan, eta ekintza puntukarietarako beti EDIN/EZAN errokoak darabiltza (agian salbuespen bakar batekin: *ygaro çan* 40).

Mendebaldeko euskalkian orain arte egiten den legez, EUTSI erroko adizkiak ditugu NOR-NORI-NORK sailean.

Harrigarria da, baina, EZAN erroko adizkiak aurkitzea subjuntibo-aoristorako, eta ez geroago hedatuko ziren EGIN errokoak.

Forma jokatuei dagokienez, *-an / -(a)la* atzizkiak nagusitu dira¹² (lehenaldian, subjuntiboan, aoristoan), eta ez da *-en / -ela-z* bukatzen denik.

Hona hemen testuan topatzen ditugun laguntzaileak:

Adizki iragangaitzak indikatiboan (IZAN):

NOR:

Orainaldia: *asi dira* (22)

Lehenaldia: *igaro çan* (40), *ikara çirean* (28)

Adizki iragankorrek indikatiboan (EDUN):

NOR-NORK:

Orainaldia: *urten dau* (20), *urten daude* (31), *bidaldu nau* (53)

Morfema tematikoa (-a-) NOR-eko hirugarren pertsonarako ere mantentzen da, gaurko bizkaieraz bezala. NORK-eko pluralgilea *-de* dugu, eta ez *-e* trinkoetan bezala¹³.

Adizki iragankorrek indikatiboan (EUTSI):

¹² Mendebalde eta Erdialde osoan bezala.

¹³ Egun -e da bizkaierazko NORK-eko pluralgile bakarra: **dau-e* > *dabe*

NOR-NORI-NORK:

Orainaldia: *emayten deusat* (50)

Lehenaldia: *esa(n) eusan* (42)

Lehen adibidean baliteke NOR-eko komunztadura egin ez izana, perpausean osagarri zuzena "eskerrik asko" baita.

Adizki iragangaitzak subjuntiboan eta aoristoan (EDIN):

NOR:

Orainaldia: *gal didila*¹⁴ (1), *sar gayteçan* (26)

Lehenaldia: *erre ez citeçan* (33)

Adizki iragankorrak subjuntiboan eta aoristoan (EZAN):

NOR-NORK:

Orainaldia: *erre açala* (3), *erre deçagun* (25)

Lehenaldia: *ez cen(e)çan*¹⁵ *empara* (5)

3.3.3. Aditz jokatua (II): Trinkoak

EDUN

doc (43): -o- erroko forma, mendebaldeko euskalkian bezala.

*debala*¹⁶ (2): subjuntiboko forma da hau¹⁷, aginterazko balioarekin.

*eudela*¹⁸ (37): lehenaldiko forma honek ez du z-rik, baina orainaldiko laguntzailean bezala (*daude*) -de da NORK-eko pluralgilea.

çituan (38): forma hau ez da batere ziurra, batzuek *zirean* irakurri dute¹⁹. Erabat irregularra izango litzatekeelakoan gaude.

Aditz honek "eduki/ukan" adiera du eresian, mendebaldeko euskalkian ohikoa ez den legez.

14 Irakurketa txarra izan daiteke edo asimilazio erregresibo bat: *dadila* > *didila* (zubererazko hainbat adizkietan gertatzen den bezala).

15 Sinkopa bat gertatu da adizki honetan. Bestalde, 2. pertsona pluraleko esanahia du: *ez zenezaten enpara*

16 Seguruenez disimilazio baten bidez eratuta: *dau* + *-ala* > **dabala* > *debala*.

17 Adizki trinkoetan ez dira bereizten indikatibokoak eta subjuntibokoak formari begira.

18 Gaurko bizkaieraz: *ebela* < **eu-e-la*

19 Arriolabengoak ez du adizkitzat jotzen (97 orr.).

IZAN: *çan* (6, 34)

Aditz trinkoa da bi esaldietan, eta bietan "egon" adiera dauka, mendebaldeko euskalkian ohikoa ez den legez.

ETZAN

daz (16): Forma honen pareko *naç* Lazarragaren testuetan agertzen da. Hala ere, Arriolabengoak²⁰ uste du egon aditzaren 3. perts. pl.-eko forma dela (bat. *daude*).

dauça (9): Badirudi 3. perts. pl.-eko forma dela, egon aditzarekin nahastuta (*dagoz*).

diaço (15): NOR-NORI saileko forma izango litzateke hau (Hura-Hari)²¹.

ESAN: *dioela* (24)

NORK-eko pluralgilea -e dugu hemen²². Horretaz gain, -n- gabe agertzen zaigu Araban eta Deba ibarreko hegoaldean bezala, Bizkaian ez bezala²³.

EGON: *nagoçu* (45)

Zukako forma alokutibo polita dugu, baina adizkiak ez du transformaziorik pairatu. NOR-NORI saileko adizki hau egungo bizkaieraz *nagotzu* da (nahiz eta alokutiboa ez izan).

Dena dela, ematen du egon aditzaren esanahia apur bat desberdina dela testuan, eta izan aditzarako "egon" adiera proposatu baldin badugu, adizki honek "geratu" aditzetik hurbilago²⁴ egongo litzateke.

EGIN: *eguien* (29)

Benetan egitura arraro batean topatzen dugu aditz trinko hau. Lehenengo begirada batean aoristoko laguntzailea irudi litekeen arren, "ezin + trinkoa" dugu. Sintaxian aipatuko dugu.

4. SINTAXIA

Arlo honetako gertakari interesgarri askoren lekuko gara eresi zahar honetan.

- *Cerren, çe* kausazkoa edo azalpenezkoa

cerren ceuren jauna ez cençan empara (5)

20 93. orr.

21 gazt. 'le yace'

22 Bat. *diotela*

23 Zuazok -in- errokoak Bizkaiko berrikuntza bat direla uste du (Zuazo 2012).

24 Nik esango nuke ing. 'stay' edo fr. 'rester'/'demeurer' parekoa dela testuinguruan: *nagoçu oera = je vous reste au lit*.

çe an daz Presebal ylic (16)

- -arren kontzesiboa
Gomez andia çanarren (6)
- Kausazko *leguez* (> -nez)
*armacaz ezin eguien leguez eçer*²⁵ (29)
- Erlatibozko menpeko perpaus zaharra: *zein ... -(a)n*
çein erre ez citeçan (33)
- Koordinazio zaharra: soz. + gen. = gen. eta gen.²⁶
beragaz Presebalen caltean (35)
- *Eta* denborazko menderagailua edo eraikuntza absolutua
çaurietan curadu eta (44)
bera Axeyçat sartu eta (52)
- -(a)la denborazkoa edo modal-gerundiozkoa
euroen artean dioela (24)
eudela parte bertan (37)
- Aditz jokatu gabeko osagarri zuzena genitiboan (TOGa)
trajioe baten asmaçean (23)
- Perpaus mailako *ey* partikula ebidentziala
Madalenaan an ey dauça (9)
- *Bay ... bere* egitura (bat. *baita ... ere*)
bay Joanicote bere (8)

²⁵ Bat. *armekin ezin zutenez ezer egin.*

²⁶ Lakarra 2008

- "Izenondoa + Izen" hurrenkera (hiperbaton)

çabal arabaarric (12)

5. LEXIKOA

Eresian darabiltzan hitzei erreparatuz, erraz ohartu daiteke horietako asko mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan normalean erabiltzen direla, baina ipar eta ekialdeko hizkeretan erabat ezezagunak direla. Esaterako: *ondo*, *asko*, *bere*, *bage*, *igaro*.

Are gehiago, soilik mendebaldeko euskalkiari dagozkionak ere badira. Hala nola, *beralan*²⁷, *horrelan*²⁸, *sartzaikera*²⁹ edo *hur*³⁰.

Bestetik, bereziak diren hitzak aipatzearen, *parte* ("patu txarra" esanahiarekin), *enparatu* (babestu) eta *sumitu* (erre, suntsitu).

Azkenik, benetako arkaismotzat jo genitzakeen hitzak badira. Haien artean, nik bi nabarmenduko nituzke:

Txibulu: musika tresna bat dela argi den arren, hapax izateagatik ezin da bere esanahia gehiago zehaztu. Arriolabengoak dio "kymbalo"-tik eratortzen dela, baina ni ez nator bat. Badirudi latineko "sībilus" (txistua, ziztua) hitzean duela jatorria, *txilibitu* eta *txulubita* bezala, nahiz eta azken hauek metatesia jasan (gazt. *silbo*-k bezala)³¹.

*Ostantz*³²: zerua, ortzimuga edo egunsentia esan nahi dezake honek.

6. LABURPENA

Sailaz saila frogatu den bezala, eresiak baditu ezaugarri jakin batzuk, sinkronikoki eta diakronikoki kokatzen lagundu dezaketenak. Hain zuzen ere, orain arte banan-banan aipatutako ezaugarriak (fonetikaz eta lexikoaz gain) bi multzotan bilduko ditugu:

Batean, mendebaldeko euskalkiaren ohiko ezaugarriekin alderatuta euskara zaharraren

27 *Berehala*

28 Bi hauetan bizkaierazko *-lan* atzizki adberbiala dago.

29 Bat. *sarrera*. Erkatu bat. *hasiera* vs bizk. *hasikera*.

30 *Hurbil*, *gertu*.

31 Aragoierazko *chiflo* jatorri bereberekoa da (*sībilus* > *sifilu* > *shiflu*; fr. *siffler*). Haize musika tresna hori eta euskal *txirula* bat eta berbera dira. Gaskoieraz *shiular* (< *sībilus* + *-are*) aditzetik *shiulòu* eta *shiulon* musika tresnak ditugu, eta baita euskal *(t)xi(r)ula* ere.

32 OEHn *ortzantz* aldaera ere jasotzen da.

ezaugarriak diruditenak.

Bestean, testuan ageri dauden mendebaldeko euskalkiaren ohiko ezaugarriak, harrezkero beste euskalkietatik aldentzen dutenak.

Ezaugarri arkaikoak:

- "Zu" 2. pertsona plurala (*zeuren, zen(e)zan*).
- EZAN erroko adizkiak, ez EGIN.
- Aditzoina erabiltzea subjuntibo-aoristorako, ez forma burutua.
- "Asko" + partitiboa.
- "Ezin + trinkoa" (*ezin egien*).
- "Zein" erlatibozkoa.
- Izan egon adierarekin, eta edun eduki adierarekin.
- Koordinazio zaharra : -gaz + gen.
- Ablatiboan -(r)ik.
- Alatiboko -(r)a inesibo gisa.
- Zukako alokutiboa.
- Aditz izenean tarteko -i- mantentzea.
- Aoristoa barra-barra erabiltzea.
- Etzan aditzeko "diatzo" adizki bipertsonala.
- "Ama bereak" eta ez "amak berak" (ipse, ez idem) (aposiziorik ez).
- "Izenondoa + izena" hurrenkera (hiperbaton).
- Osagarri zuzena mugagabeen.
- TOGa.

Mendebaldeko ezaugarriak:

- Honako atzizkiak: -an/-(a)la adizkietan.
- Edun adizkiak: dok, debala, daude, eudela.
- Ablatiboan -(r)ean.
- Partikula ebidentziala "ei".
- Artikulu hurbila -ok.
- Etzan aditzeko "datz".
- Urten aditzaren forma eta iragankorra izatea.
- Bertan (ez berean).
- Soziatiboan -gaz/-kaz.

- Kausazko "legez".
- Egon aditzeko "nagotzu" forma bipertsonala *-ki* datibo ikurrik gabe.
- EUTSI erroko adizkiak: eutsan, deutsat.
- Baten (ez batean, batetan).
- Menderagailu kontzesiboa "-arren".
- Ergatibo pluralean -ak (ez -ek).

7. BIBLIOGRAFIA

Aldai, G. 2009. *Aoristo perifrástico, perfectivo y pluscuamperfecto: Leizarraga vs. Lazarraga* in *ASJU-XLIII*, 19-36.

Arejita, A. 2002. *Bizkai euskeraren jarraibide liburua: lehenengo pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia/Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

Arriolabengoa, J. 2008. *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan. Testu zaharraren ediziorako kontribuzioa*. Bilbo: Euskaltzaindia

Lakarra, J. 2008. *Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de "Urthubiako alhaba"* in *ASJU-XLII-1*, 83-100.

Mitxelena, K. 1964/1990. *Textos arcaicos vascos. ASJU-ren Gehigarriak-XI*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/Euskal Herria Unibertsitatea.

Mitxelena, K., et al., 2013. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zuazo, K. 2012. *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.